

Zuhertza
euskaraz elkarfeak
176. alean - deba

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 176. alea - 2013ko uztaila



**Hitzez zein kantuz,
euskaraz gozatuz**



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaatik

BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

Kafetegia

Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton

JATETXEA

Agusín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea

Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Erredakzio taldea

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Maketazioa:
Leire Rubio

Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal

Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale

Lege gordailua:
SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILDEAK



LAGUNTZAILDEAK



KOLABORAZIOA.

Goizane Aizpurua,
"Zaharrak berri". **05.**

IHTZIA.

"Demokratak omen gara" (Gazte Asanblada). **06.**

ALBISTEA.

Zuhatzak eta Mendata ikastetxeak antolatutako literatur lehiaketak baditu irabazleak. **07.**

ALBISTEA.

Kolorez Blai udalekuak, martxa betean. **08.**

AMODIOZKO GUTUNAK. 09-10.

KIROLAK. Itxasmila Zeharkaldia, Amaiak Baten urteroko batzarra, giza probak... **15.**

LABURRAK.

Aitzuriren eta Debako Bandaren kontzertua Pablo Sorozabalen omenez, indusketa berriak Praileaitzen, San Juanak Santa Katalinan... **16-17.**

ZERBITZUAK. 18.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Debakolore, hondakinen sailkapen arduratsuaren alde

Ur botilek, zigarrokinak eta entsalada hondarrek poltsa berebetean amaitzen dutenean eta pilek eta egurrezko apalek ontzi berdean topo egiten dutenean, birziklatzeak zentzu guztia galtzen du. Hurbilen dugun zabor ontzian dena nahieran botatzen dugunean, laguntza gutxi ingurumena eta amalurraren defentsan.

Sortzen ditugun hondakinak sailkatzea ezinbestekoa da eta are gehiago bizi ditugun kontsumo eta kutsadura mailak ezagututa. Gure birziklapen tasak eta gure inguruko errealitatea zeintzuk diren jakinik, ezinbestekoa ikusten genuen gai honen inguruan informazioa eta sentsibilizazioa zabaltzea. Horretarako sortu da Debakolore, hondakinen sailkapen arduratsuaren alde hain zuzen.

Taldearen lehendabiziko ekimena inkesta bat luzatzea izan zen, non jen-

deari ea zein hondakin sailkatzen zituen galdetzen genion; inkestetako emaitzei begiratzen badiegu, Deban oso birziklatze maila altua dugula sinistuko genuke. Baina ez da horrela.

Bigarren ekimena esperimentu bat izan zen; izan ere, ez genekien zein izango zen emaitza eta harriturik geratu ginen. Betiko edukiontzia berdetik poltsa ezberdinak atera genituen eta bertan zeuden hondakinak sailkagarriak diren multzoetan ezarri genituen. Hauxe izan zen emaitza jasotako 52,85 kg-tik: garbiguneari zegokiona: 6,1 kg (%11,54); papera 8,3 kg (%15,7); ontziak 6,45 kg (%12,2); organikoa 20,35 kg (%38,5); beira 7,60 kg (%14,38); errefusa 4,05 kg (%7,64).

Ikus daitekeen moduan, ontzi berdearen barruan gaur egun sailkagarriak diren hondakinak aurkitzen ditugu; hau da, ontziek, beirak eta paperak beren



kontainer berezitua dute eta garbigunearako hondakinak asteko egun batean jasoak dira edo Mutriku aldera eramanez izan behar dira. Berez, errefusa eta organikoa topatu behar genuen lekuan bestelako hondakin mota ugari topatu genuen; eta, zenbakiei begiratu gero, oso argigarria da: %46,14a soilik (organikoa %38,5 eta errefusa %7,64) zen bertan egon behar zuena.

Gurekin harremanetan jarri ahal izateko idatzi debakolore@gmail.com helbide elektronikora.

Debakolore

Jose Mari Beristain eta Jokin Uraini

Kaixo Erlete, epa Kixkur.

Hemen elkartu gara zuen urtebetetze egunen aitzakian argazki bat ateratzeko. Hi, Erlete, uztailaren 11koa haiz, eta hi, Kixkur, 21ekoa. Beraz bioi zorionak. Zorionak zuen adoreaगतिक, zorionak zigorra bete izan arren adierazten duzuen pazientziगतिक, zorionak umoreari eusteगतिक.

Aurrez aurre belarritik tiratzeko aukerarik ez dugunez, papera izango diagu bitartekari eta bertso honekin agurtzen zaituztegu:

*Mende laurden baino gehio
espetxe urrunetan,
hamar milatikan gora
ditugu egunetan
zenbat malko ta oroimen
ziega beltz lizunetan
askatasun argi printzak
badatoz uhinetan
besarkatuz muxu bana
zuen urtemugetan
azkena izan dadila
gaurko baldintzetan (bis).*



Debako Herrira Bilgunea

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel/Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatza


943 191 383
berriketan@zuhatza.com

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447



GOIZANE AIZPURUA

ZAHARRAK BERRI

Bidean jartzen garen bakoitzeko, paisaia menditsuek lautada zabaletatik banatzen dituzten 300 kilometroak aurrean jartzen dizkigute. Atzean geratu ziren Leitz-Gatzagako portua, Castrojerizeko errepide komarkalak eta nohizbehinka pausu arinean bidea gurutzatzen zuten galeper bakanak. Orain Burgos-Leon autobiak leun eta arinagoa egiten du bidaia.

Gaztelako "itsasoa" berde dago oraindik, eguzkia izkutaketan aritu da eta gari, arto, eguzkilore eta garagar soloak ez dira nahikoa hazi. Neguko euriek zenbait tokitan uzta usteldu dute eta lastotarako ere motz geratu da zereala. Dagoeneko bilduta egon beharko litzatekeen uzta oraindik motz eta berde. Hala ere, haizeak uhinak bailiran mugitzen ditu.

Betikoak agurtu, zer moduz hemengoak, zer moduz hangoak, eguraldia gora-behera, uzta eskas eta aspaldiko kontuak.

Duela urtebete inguru Endoixako baserri bateko emakume batek ea nor nintzen galdetu zidanean, neuk, beti bezala, "Xabier Olaberen alaba" esan eta nahikoa zelakoan, hark zera erantzun zidan: "Bai, Castellana batekin ezkondu zena". Harrituta utzi ninduen. Castellana...

Amak euskaraz hazi gaitu jaiotzetik eta baita bere Palentziako jaioterrira eraman ere betidanik. "La abuela y el abuelo" hangoak ziren. Ama, nire-

tzat, hemengoa. Nebak eta biok ama euskaraz eza-gutu dugu. Ama euskaraz mintzatu zaigu. Aldi berean bere jaiotterriko ohiturak erakutsi dizkigu. Negu gogorretan "la abuela" eta etxea bero mantentzeko "Gloria" pizten erakutsi digu, soloetako zerealak ezberdintzen, ardien trasumantzia bideak, txikitako eskola, "la abuela y el abuelo" lan egiten zuten "Monton de Trigo" Finca eta baita bertako txarribodaren batera eraman ere.

Jaioterrria Cervatos de la Cueva, bizilekua Deba. Ama hizkuntza?... Euskal hiztunen etiketa jartzerako orduan "euskaldun berria" ala "euskaldun zaharra" da gure ama? Hiztegiara joz gero, euskaldun zaharra euskara ama hizkuntzat duena da. Euskaldun berria, ordea, nagusitan euskara ikasi duena, gaztelera, frantsesa edo beste hizkuntzaren bat ama hizkuntzat izanik. Beraz, ama euskaldun berria litzateke. Baina Gaztelan jaioa izanik, bere amari "mama" edo "madre" deitu beharrean ama deitzen diona, seme-alabei euskaraz mintzatu zaien ama, herri honen sena eta nortasuna barruraino sarturik daraman pertsona euskaldun zaharra ala berria den gutxi axola du, euskaraz mintzaten baita.

Gaztelan landaturiko haziak erroak bertan ditu, sustraiak Gaztelarrak dira baina adarrak Euskaldunak, adar zaharrak zein kimu berriak.





DEMOKRATAK OMEN GARA

Azken urteotan eman diren aldaketa sozio-politikoaren harira argitaratu diren hainbat eta hainbat berri eta notiziek hitz berbera errepikatu izan dute behin eta berriz: Demokrazia. Hitz borobila, balio kalkulazina duena, ene ustez, denon gustokoa edo behintzat gehiengo batengatik mirestua.

Greziar jatorria dauka hitz honek. *Demos* (herria) *kratos* (boterea), hau da, herriaren boterea. Hori omen da demokrazia. Baina neure burua gero eta ezkorragoa da hitz honek barneratzen dituen kontzeptuen inguruan.

Jakina da garai zailak bizi direla planetako etxe eta txoko askotan, gehiengo handi batean esango nuke, demokraziaren kontraesan absolutua bilakatuz aldi berean. Herriak boterea omen duen honetan, herriak berak jasan behar du gutxi batzuek eragindako kakanahastea. Beraz, ez daukat argi demokrazia zer den ala zer ez den. Ea argitzen didazuen.

Guztion dirua lapurtzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Enpresari baten mesedetan langilegoa txirotztea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Injustizien aurka protestatzen dutenak jipoitzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Buruzagi faxistak ohore guztiakin lurperatzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Kanpotarra izateagatik medikuntza ukatzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Herri batek dituen eskubideak ukatzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Futbol zaletu bat akatzea eta inorrek erantzukizunik ez onartzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Jendea etxe gabe uztea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Hizkuntzak zapaltzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Jendea gosez hiltzen uztea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Konpromiso sozial eta politikoaren alde lan egiteagatik gazteria atxilotzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Diktadore batek hautatutako "estatu buruzagia" edukitzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata. Eta bere izenean kargu judizialeatik libratzea demokrazia bada ere, ezta, ez naiz demokrata.

Ogasunari milioika euro iruzurtzea eta tribunaletan ez ordaintzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Gotzain eta apaiz homofobo eta pedofiloak diru publikoarekin mantentzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Tortura instituzionala demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Jaioberrien salerosketa estaltzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Populazioaren %20ak baino gutxiagok, baliabideen %80a baino gehiago kontrolatzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Argitaletxeak ixtea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Askatasuna eta berdintasunaren alde borrokatu zuten fusilatu eta desagertuei memoria eta duintasuna ukatzea demokrazia bada, ni ez naiz demokrata.

Asko goratzen da demokrazia, baina gizadiak inoiz ez du azken berrehun urte hauetan

bezalako triskantzarik ezagutu. Gerra eta txikizio metodoak ere demokratizatu egin dira, populazio zibilaren bonbardaketa indiskriminatuak, genozidio plangintzak, arma kimikoak... guztia demokraziaren izenean.

Beraz, ez dakit daukadan buruhauste hau nire ezjakintasunagatik edota ignorantziagatik izan daitekeen edo, bestalde, jende askoren ahoa hitz hutsez betetzen den demokraziar ari zaizkigun. Ez dakit beranduago eskuetatik kenduko diguten goxoki bat oparitzen ari zaizkigun.

Gauza bakarra da argi daukadana. Aipatu dudan guztia demokrazia bada, ni ez naiz eta ez naiz izango demokrata. Eta demokrata ez izateaz harro egongo naiz.

Eta zu, demokrata al zara?

Lander Aznal



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERRITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Deban Kalean Kantuz taldearekin agurtu dute ikasturtea mintzalagunek



Mintzalagunek Deban Kalean Kantuz taldearekin batera ekainean eman zioten amaiera aurtengo ikasturteari. Hiru talde aritu dira mingaina dantzan euskararen erabilera handitzea helburu duen egitasmo honetan. Azarotik ekainera bitartean aritu dira mintzalagunak egitasmoan eta ekimenari amaiera alai bat emateko asmoz, Deban burutzen den ostegunetako pinxo-potera irten ziren kantariekin batera.

Deban Kalean Kantuz taldeak kantu liburuxka bat argitaratu berri du Zuhatza Euskara Elkartearen laguntzarekin. Eta, liburuxkako abesti batzuk hautatuta, bi taldeetako kideak bildu eta herriko kaleetatik barrena aritu ziren kantuz kantu.

Idatzi honen bitartez Zuhatzak eskerrak eman nahi dizkie mintzalagun egitasmoan aritu diren kide guztiei zein Kalean Kantuz taldekoei. Jarrai dezagun guztion artean aurrerantzean ere herria girotzen eta gure hizkuntza den euskara zabaltzen eta maitatzen!



Literatur lehiaketak baditu irabazleak!



Aurten ere, Zuhatza Euskara Elkarteak literatura lehiaketa antolatu du Mendata institutuko ikasleen artean, ikastetxearekin elkarlanean. Sari banaketa ekainaren 19an izan zen eta Zuhatzako kide Koldo Aperribai, Iñaki Elosua eta Emili Sukia bildu ziren ikasleekin. Beste behin ere, Mendatako liburutegian banatu ziren sariak.

Hona hemen aurtengo epaimahaiaren erabakia:

1. zikloan: *narrazio generoan*, lau lan saritu ditu: Malen Egaña, Miren Aizpurua, Ibon Etxabe eta Beñat



Escudero izan dira irabazleak. *Olerkian*, berriz, Paule Aranberriren eta Oier Beristainen lanek lortu dute saria.

2. zikloan: *narrazioan* bi lan parekatuta geratu dira, eta euren artean banatu da saria: Alaitz Escudero eta Maddi Astigarraga. *Olerkian*, ez da lan bakar bat ere aurkeztu. Saririk ez da banatu, beraz.

Zorionak eta eskerrik asko parte-hartzaile guztiei! Baita aurtengo epaimahaia osatu duten kideei ere! (*Oharra: lan sarituak *Berriketan*-ek kaleratuko ditu, abuztuko alean).

Kolorez Blai Udalekuetan buru-belarri lanean



Aurtengo begiraleak, udalekuen baitan antolatutako Aldrebes Eguna prestatzen.



Borja Lekube (erdian), Kolore Anitz taldeak saldutako rifen irabazlea.

Deba eta Itziarko haur eta gazteok uztailaren hasieran eman diegu hasiera Kolorez Blai Udalekuei. Talde ederra bildu gara aurten ere udako aisialdiaz euskaraz gozatzeko asmoz, berrehun bat umek eman baitute izena udalekuetan. Hori dela eta, haientzako eskaintza txukuna prestatzeko helburuarekin, Kolore Anitz taldeko begiraleok gogotsu ekin genion udalekuak prestatzeari ekainaren amaieran.

Aurten udaleku berritzaileak egin nahi izan ditugu, eta ilusioz beterik ekin diegu lanari. Hezkidetza, aniztasuna, talde lana, berdintasuna... bezalako baloreak euskaraz lantzea da udalekuen helburua, jolas eta ekintza ezberdinez baliatuz, guztien gozamenerako. Udalekuak bi txandatan burutuko ditugu, eta **Berriketan** aldizkariaren abuztuko alean emango dizuegu egindakoaren berri.

Udaleku hauetarako abesti propio bat sortu dugula

ere jakinarazi nahi dizuegu eta, lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu Iban Zurita eta Alaitz Escuderori, beraiek muntatu baitute abestia Iker Velarekin batera -Alaitzek ahotsa jarri dio kantari, eta Ibanek egin du abestiaren montajea; letra, berriz, Iker Vela Kolore Anitz Aisialdiako begirale eta abeslariak sortu du-.

Bestetik, uda aurretik saldutako Kolore Anitz taldearen rifen zozketak badu irabazlea. Zenbaki saritua 26a izan da, eta Borja Lekube izan da irabazlea. Txomin jatetxean bi laguntzako afaria eta "Kolore Anitz sorta" irabazi ditu. Zorionak irabazleari, eta on egin!!

Munduz mundu, hegan egin, euskaraz biziz... Kolore Anitz!!

Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Aspertzeko astirik gabe Gaztelekuan



Pasa den hilabetearen esan genizuen bezala, uda honetan ez daukagu aspertzeko astirik Gaztelekuan. Ekaina ez ezik, uztaila ere ekimenez beteta iritsi zaigu. Hemen bildu ditugun argazkiak, adibidez, Murillo de Gallego herrian igaro genituen hiru egu-



netan ateratakoak dira. Irteera dibertigarria izan zen oso eta horren adierazle dira irudi hauek. Beste hamaika ekimen ere baditugu orain esku artean. Laster emango dizuegu horien berri ere!

Gaztelekuko Hezitzaileak

MENDATA IKASTETXEKO IKASLEEK AMODIOZKO GUTUNAK IDATZI DITUZTE AURTEN ERE. HORIETAKO
BATZUK BILDU NAHI IZAN DITU BERRIKETAN-**EK** ALE HONETAN, ZUEK GUZTIOK GAZTEEN LANAK
IRAKURTZEKO AUKERA IZAN DEZAZUEN.

AMODIOZKO GUTUNAK



NOR ZARA?

PAULE ARANBERRI (2. MAILA)

NON DAGO ZURE IRRIBARRE AHAZTEZINA?

NON DAGO BEGIRADA EDER HORI?

NOR ZARA?

EZ ZAITUT EZAGUTZEN.

ZERGATIK JOKATZEN DUZU HORRELA?

BESTE EK NAHI DUTENA EGIN ETA ESANEZ?

NIK ZU MAITE ZAITUT,

NIK ZU MAITE ZINTUDAN.

NIK EZIN ZAITUT HORRELA IKUSI,

HORRELA UKITU,

HORRELA MAITATU,

EZIN DUT HORRELA JARRAITU.

NIK EZIN DUT GEHIAGO,

ELKARREKIN BAGAUDE EZ PENTSATU,

SENTITU,

BAKARRIK MAITATU.



MAITE ZAITUT

ANE REDONDO (2. MAILA)

ZU ZARA NIRE BIHOTZA

ZU ZARA NIRE GOIZEKO EGUZKIA

ZU GABE EZ NAIZ EZER

BIHOTZA LAPURTU DIDAZUN MUTIL BAKARRA ZARA

ZU EZ ZAUDENEAN NIRE MUNDUAK EZ DU

ZENTZURIK

ZU ZARA NIRE OXIGENOA.

EGUNEN BATEAN ZURE EZPAINAK NIRE

EZPAINEN AURKA SENTITU NAHI DITUT

ZURE AHOTIK "MAITE ZAITUT" HITZA

ATERATZEA NAHI DUT,


ZURE ESKUAK NIRE EKIN LOTUAK IZATEA, EZ

ZAITEZ JOAN NIRE MUNDUA ZARA ETA.

POESIA HONEKIN NIK SENTITZEN

DUDANA KONTATZEN DIZUT.

MAITE ZAITUT, NIRE GOGOKO MUTILA.





ORAINDIK ERE MAITE ZAITUT

IÑAKI AMILLETA (4. MAILA)

KAIKO, MAITEA:

NIRE AURETIK PASATZEN ZAREN BAKOITZEAN, USAIN BERDINA ETORTZEN ZAIT, ASKO GUSTATZEN Z AidAN USAIN HORI, ITSASOAREN USAIN GOXO HORI. HONDARRA LAZTANTZEN DUEN UR UHINEK SORTZEN DUTEN LAINOTXO MAMITSUA GARELA AMETS EGITEN DUT, USAINTZEN ZAITUDAN BAKOITZEAN. BAINA BEGIAK IREKITZEAN, AMETS BAT BAKARRIK IZAN DELA KONTURATZEN NAIZ ETA MALKOAK SENTITZEN DITUT MASAILETATIK BEHERA.

HUTSUNE HANDIA DAUKAT NEURE BARRUAN, ZURE FALTAK ERAGITEN DIDAN BAKARDADE ETA EZINEGONA JASAN EZINAK DIRA-ETA. EDOZER EMANGO NUKE ZURE EZPAIN HARAGITSUAK BERRIZ DASTATZEKO. ZURE EZPAIN GORRI ETA MARRUBI ZAPOREDUN HORIEK. ZURE AHOTS LEUNA ENTZUTEAREN FALTA GERD ETA HANDIAGO DA; NAHIAGO NUKE GORRA IZAN BETIKO, BERRIRO ERE ENTZUN EZIN BAZAITUT. ETA ZER ESANGO DIZUT ZURE BEGI EDERREI BURUZ. ZURE BEGIEN KOLORE ETA DISTIRA HORI IKUSTEAN, ITSUTUTA GERATZEN NAIZ, EGUZKIARI ZUZENEAN BEGIRATZEN DIO-DANEAN BEZALA. ETA ZURE ILEA, BERRIZ, ILARGI BETEA DAGOEN GAU IKUSGARRI HORIETAN ITSASOAK JASOTZEN DUEN ISLADA HORI BAINO LEUNAGO DA.

GURE HARREMANA APURTZERAKOAN, ERU IZUGARRIA EGIN NUELA KONTURATZEN NAIZ ORAIN ETA GU BIK BATA BESTEAREN TZAT EGINDA GAUDELA. BAINA ORAIN EZ DAGO DENBORAN ATZERA EGITERIK ETA EZ DIZUT JOATEN UTZIKO, ZUGATIK SENTITZEN DUDANA BEGIETARA BEGIRA ESAN GABE. NOIZBAIT, NONBAIT, BERRIZ ZURE BESARKADAREN BEROTASUNA SENTITUKO DUDALAKOAN, ITXARONGO ZAITUT BETIKO.

ORAINDIK MAITE ZAITUENA.



MAITEMINDU BATEN GUTUNA

JULEN MONASTERIO (2. MAILA)

MAITASUNA DUT NIRE BIHOTZEAN,
SEGUNDOAK PASATU AHALA
BIHOTZA BETETZEN DOA.

MOTELAGO HANDITZEN DA
ZU IKUSTEAN,
ETA GELDITUKO DA
ZUREKIN ELKARTZEAN.

GAUEKO IZARREK
ZURE BEGIEN ANTZA DUTE,
ZURE ILE HORIAK
EGUZKI IZPIA DIRUDI,
ETA ZURE AZALAK
HONDARTZAKO HARE TXURIA DIRUDI.

ETA NIRE BIHOTZAK JARRAITZEN DU
HANDITZEN,
HELDUKO DA MOMENTU BAT EZINGO
DUDALA EDUKI
ETA ORDUAN, EGINGO DIT IHESI.

ZUK EGIN DEZAKEZU POSIBLE, MAITEA,
ZUK DUZU AUKERA.



Berriketan gaztea

2013ko uztaila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

Iritsi da azkenean ekaina, eta berekin batera pixkanaka-pixkanaka eguzkia ere etorri zaigu! Urte guztian zehar hiru hilabete hauen zain egoten gara. Ekaina oporrak hartzen ditugun hilabetea da. Uztailean gurasoek hartzen dituzte oporrak, eta horregatik erabiltzen ditugu ekaineko azken eguntxo horiek gure

gurasoei inbidia emateko. Abuztuan, berriz, denok izaten ditugu oporrak eta hilabete horretan datoz Debako festa garrantzitsuenak ere, SAN ROKEAK!!!


Uda badator... Kaixo, oporrak!!



San Juan Sua, jai berezi eta hunkigarria

Goian hainbat kontutxo aipatu ditugu, baina lerro hauetan ekainean ospatu ohi dugun San Juan sua ere nabarmendu nahiko genuke. San Juan sua duela urte askotatik ospatzen den jai berezi eta hunkigarria da. Ekainaren 24ko gauetan ospatzen da. Egun horretan, sua pizten da urtean argi ordu gehien dituen eguna delako. Ohiturek diotenez, urte horretan gertatutako gauza edo gertaera txarrak edo ez gustagarriak papertxo batean idatzita sutara botatzen badituzu, hurrengo urtean ez dira gertartuko.





ELKA RRIZ KETA

Musikariekin solasean

Oraingo honetan, Mikel Elorza (M.E.), Jon Amutxastegi (J.A.), Maialen Egia (M.E.) eta Iratz Fernandez (I.F.) elkarrizketatu ditugu. Musika izan dugu hizpide.



Zer da musika zuretzat?

M.E.: Gustuko dudan zerbait.

J.A.: Niretzat denbora-pasa interesgarria da.

M.E.: Hobby bat. Kar, kar.

I.F.: Gauza oso polit bat, entzutea gustuko dudana.

Zer instrumentu jotzen duzu? Zer sentitzen duzu hori jotzean?

M.E.: Flauta eta pianoa. Oso gustura sentitzen naiz.

J.A.: Saxofoia eta aurten pianoarekin hasi naiz. Poza.

M.E.: Pianoa, kontrabaxua eta oboea. Lasaitasuna sentitzen dut.

I.F.: Perkusioa. Gustura sentitzen naiz.

Zerk eraman zaitu musika mundura?

M.E.: Txikitatik gustatu izan zait.

J.A.: Hasieran musika eskolan hasi ginen eta hortik aurrera gogoz jarraitu dut.

M.E.: Txikitatik gustatu izan zait.

I.F.: Txikitan solfeora apuntatu ninduen amak eta perkusioa aukeratu nuen.

Astean zenbat aldiz entseatzen duzu?

M.E.: Gutxitxo, egia esan.

J.A.: Behar baino gutxiago. Kar, kar.

M.E.: Asko.

I.F.: Klasea dudanean eta bandan, eta gero nire kontura etxean, noizbehinka.

Gustuko al duzu? Zein da zure helburua musikan?

M.E.: Bai. Gustatzen zaizkidan partiturak jotzeko gai izatea eta titulua jasotzea.

J.A.: Bai, asko. Saxofoia eta pianoa hobetzea.

M.E.: Bai, musikan jarraitzea eta oso ondo pasatzea.

I.F.: Bai, maila on batera heltzea.

Gustatuko litzaizuke beste instrumenturen bat jotzea? Zein? Zergatik?

M.E.: Bai, gitarra. Asko gustatzen zaidalako.

J.A.: Bai, flauta trabesera. Beti gustatu izan zaidalako eta interesgarria iruditzen zaidalako.

M.E.: Saxofoia. Asko gustatzen zaidalako eta taldeetan aukera asko ematen duelako, jazza eta abar.

I.F.: Bai. Pianoa, biolina, tronpeta, tronboia... Instrumentu guztiak politak direlako.

EGILEAK: Nora Mandiola, Ane Garcia eta Naia Orbegozo

IKASTURTE amaiera, OPORRAK...

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean ikasturte amaierari eta oporrei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Zaila egin al zaizu hirugarren hiruhileko hau?
- 2.- Nola sentitzen zara oporrak datozela jakitean?
- 3.- Oporrak lagunekin pasako dituzu?
Eta zer egingo duzu?
- 4.- Familiarekin joaten al zara oporretan?
- 5.- San Rokeetan Deban egongo al zara?



Telmo Soto:

- 1.- Bai, ikasteko gauza gehiago daudelako.
- 2.- Oso ondo eta pozik.
- 3.- Bai, hondartzara joango gara, frontoira...
- 4.- Bai, joango naiz.
- 5.- Bai, jaietan bertan egongo naiz.



Julen Izagirre:

- 1.- Bai, kontrolak pilatu egin zaizkigulako.
- 2.- Oso pozik eta gustura.
- 3.- Ez, aitari lagunduko diot baserriko lanetan...
- 4.- Bai, joango naiz.
- 5.- Ez.



Irati Aznal:

- 1.- Ez, niri errazagoa egin zait.
- 2.- Oso ondo sentitzen naiz.
- 3.- Bai. Hondartzara joango gara, adibidez.
- 4.- Bai.
- 5.- Bai, herrian egongo naiz San Rokeetan.



Ander Arrieta:

- 1.- Bai, kontrol asko izan ditugulako.
- 2.- Oso ondo.
- 3.- Bai. Hondartzara joango naiz, lagunekin ibili....
- 4.- Bai.
- 5.- Bai, hemen egongo naiz.




Sara Arrizabalaga:

- 1.- Pixka bat bai.
- 2.- Pozik.
- 3.- Bai, lagunekin ibiliko naiz opor hauetan.
- 4.- Ez, ez naiz familiarekin joango oporretan. Lagunekin ibiliko naiz.
- 5.- Bai, herriko jaietan hemen egongo naiz.



Jon Osa:

- 1.- Bai, zaila iruditu zait. Asko suspenditu ditut, eta lan handia egin behar izan dut.
- 2.- Oso ondo eta ilusionatuta.
- 3.- Bai, Deban eta Itziarren. Bidaiatu eta parranda asko egin.
- 4.- Bai, baina lagunekin nahiago.
- 5.- Bai, bertan egongo naiz.



DenBord-pasaK

TXISTEAK

*Txinatarrak

Txinatar batek zera esan zion gizon bati:

- Aizu, kotxe hori berria al da?
- Bai, Alfa bat da.
- Lomeo?
- Pixa egiten badiozu, belarrondoko bat emango dizut!



*Patxiku

Patxiku bere ikaskide batekin:

- Alazne, zu non jaiio zinen?
- Ni gurasoen etxean. Eta zu?
- Ni? Ospitalean.
- Zer dela eta? Gaixo zeunden edo?

*Matematika

Matematika liburu batek bere buruaz beste egin zuen... zergatik? Problema asko zituelako.

asmakizunak

***Laugarren** geratu naiz ligan eta jokalaria onak ditut. Zein talde naiz?



***Marrazki** bizidun bat naiz, esploratzea gustatzen zait eta nire motxila oso famatua da. Zein naiz?

EGILEAK: Iratz Fernandez, Imanol Sobrado eta Jon Albizu

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDETTA 2012-2013

Naia Orbegozo
 Maria Aizpurua
 Jon Yarza
 Iratz Fernandez
 Imanol Sobrado
 Jon Albizu

Aitor Gonzalez
 Alex Treku
 Ane Garcia
 Nora Mandiola
 Iker Leiro
 Amaia Mendikute

Koordinatzailea: Iraide Otazua

104.000 euroko aurrekontua izango du Amaiak Batek datorren denboraldirako



Ander Salegi

Pasa den ekainaren 29an, Amaiak Bat taldeak urteroko batzar orokorra ospatu zuen. 42 pertsona bildu ziren batzarrean, eta gai ordeneko puntu guztiak onartu zituzten. Besteak beste, beste urte batez bazkideen kuotak ez igotzea erabaki zen (taldeak 730 bazkide ditu gaur egun). Urteko diru kontuak ere aztertu eta adostu zituzten, 700 euroko aurrekontu soberakina dutela jakinaraziz. Datorren denboraldirako aurrekontua, berriz, 104.000 eurokoa izango da.

Kirol kontuei dagokienean, datorren urtean infantil mailako bi talde izango ditu elkarteak, infantil txiki talde berria sortuko baita. Oharren eta galderen atalean, Dabi Sagarna presidenteak azaldu zuen uda honetan futbol zelaian pendiente dauden aldatoki eta obra zibila amaitzeko obrak amaituko direla. Gainera, bigarren urtez, Deban futbol udaleku bat antolatu da uztaileko (Uda futbola). Azkenik, batzarrean agertu zirenek hiru bazkide aukeratu zituzten denboraldi honetako akta egiaz-tatzekotan. Aldats pilotalekuan bazkari herrikoiarekin agurtu zuten denboraldia.

200dik gora parte-hartzaile izan ditu aurtengo Itxasmila Igeriketa Zeharkaldiak



Ander Salegi

Uztailaren 6an jokatu zen Debako VI. Itxasmila Igeriketa Zeharkaldia. Eguraldi bikaina ez ezik, parte-hartzaile kopurua ere nabarmenezko modukoa izan da aurtengo hitzorduan. Izan ere, guztira 202 lagunek osatu zuten igerian 1.852 metroko zeharkaldia, tartean herriko hainbat igerilari zirela –herriko lehen sailkatuak aurkibidean ikus ditzakezue-. Peru Alfaro (Hernani K.E.) nagusitu zen proban, ibilbidea hogeita minutuan eta 41 segundotan eginda; Aitzol Arrillaga izan zen bigarrena (00:20:44) eta Martin Aizpiri (00:20:57) hirugarren postuan sailkatu zen. Sailkapen nagusia www.kirolprobak.com atarian kontsulta daiteke.

Aurten ere, igeriketa probak Esklerosi Anitzaren Fundazioak bultzatutako “Busti Zaitetz” kanpainarekin bat egin du. Itxasmila Deba-Itziar Xtreme Triatloi Taldeak eta Urbat Igeri Taldeak antolatzen dute, Debako Udalaren laguntzarekin.

Xtreme taldeko zortzi kide Donostiako Nazioarteko Triatloian

Atletico San Sebastian elkarteak antolatuta, ekainaren 30ean Donostiako Nazioarteko Triatloia jokatu zen (Onditzen Oroimenez), eta Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeko zortzi kidek parte hartu zuten. Hauek dira kirolariek lortutako postuak eta denborak: Jagoba Egaña, 34. postua (2:11:09); Unai Aristi, 72. postua (2:15:15); Jose Mari Paredes, 220. postua (2:25:16); Alberto Gordoia, 263. postua (2:27:58); Ander Arritokieta, 371. postua (2:34:23); Alex Gil, 482. postua (2:40:23); Angel Mari Manzisidor, 521. postua (2:43:31) eta Goiatz Leibar, 554. postua (2:46:25).



Giza proba taldeak bigarren postua lortu zuten Oriko saioan

Gipuzkoako taldekako giza proba txapelketaren kanporaketako lehen saioa Orion jokatu zen ekainaren 29an. Lau talde aritu ziren lehian, eta oriotarrak nagusitu ziren (47 plaza). Hiru plaza gutxiago eginda, bigarren postuan sailkatu zen Debako taldea. Berrobiko taldeak 43 plaza egin zituen eta mendarorrek egin zituzten plaza gutxi, 39, hain zuzen ere. Kanporaketako bigarren saioa Mendaron jokatu zen, uztailearen 13an, eta Orio eta Berrobi sailkatu ziren abuztuaren 4an Aian jokaturako den finalerako.



Debako Musika Bandak eta Aitzuri Abesbatzak kontzertua eskainiko dute Pablo Sorozabalen omenez



Uztailaren 27an (larunbata) Debako Bandak eta Aitzuri Abesbatzak kontzertua eskainiko dute Zumardian. Gauean burutuko da emanaldia eta bi taldeak arituko dira, bakarka zein elkarrekin. Kontzertuan Pablo Sorozabalen figura gogoratu nahi dute musikariek eta konpositoreak berak sortutako piezek osatuko dute emanaldiko errepertorioa.

Pablo Sorozabal Mariezkurrena konpositore eta orkestra zuzendaria Donostian jaio zen 1897an, eta Madrilen hil zen 1988an. Opereta eta zarzuelaren munduan oso sortzaile ezaguna izan zen, baina arrakasta handiena antzerkigintza lirikoari esker lortu zuen. Sorozabal lan sinfoniko, koral eta instrumentalen katalogo garrantzitsu baten egilea da, eta aipatzekoa da txisturako egin zuen errepertorioa ere.

Musikariak konposatu zituen obra guztiak zerrendatzea ariketa zaila bada ere, hona hemen bere lanik esanguratsuenetakoz batzuk: "Katuska" zarzue-

la, "Juan Jose" drama lirikoa, "Suite vasca", "Neskatxena" suite korala, "Donostia" fandangoa, "Maite" zortziko, "Euskalerrria" eta "Gernika", bere lanik kutunena.

Sorozabalek beti erakutsi zuen publiko zabal eta ezberdin batekin harremanetan jartzeko ohiz kanpoko ahalmena. Berak ere "herriko musikari" gisa aurkezten zuen bere burua.

Bere bizitzako udaldi asko eta asko Deban pasa zituen Sorozabalek, eta harreman estua izan zuen, besteak beste, Ozio-Bide elkartearekin. 1956an hari eskaini zion, hain zuzen ere, guztiok aski ezaguna dugun "Debako Martxa" (edo "Irugarren kalez kale") eta sei urte beranduago "Ozio-Bide" polka ezaguna sortu zuen.

Aurten hogeita bost urte betetzen dira Pablo Sorozabal hil zenetik. Eta urteurrena ez da oharkabean pasako Deban. Bandak eta Aitzuri Abesbatzak eskainiko duten kontzertuaz gain, beste-

lako ekimen batzuk ere burutuko dira herrian. Besteak beste, uztailaren 26an erakusketa bat inauguratuko dute Agirre Jauregian eta uztailaren 30ean ospatuko den Nazioarteko Dantza Jaialdian zein abuztuko Musika Hamabostaldian ere presente izango da Sorozabalen memoria.

Aitzurik 25 urteko ibilbidea bete du Aurtengoa urte berezia du Aitzuri Abesbatzak ere, 25 urteko ibilbidea betetzen baitu. Hori dela eta, uztailaren 27ko emanaldia berezia izango da, urte hauetan guztietan abesten aritu izan diren kideek parte hartuko baitute kontzertu horretan. Lehen aipatu dugun bezala, Aitzurik eta Bandak (elkarrekin zein bakarka) Pablo Sorozabalen obrez gozatzeko aukera emango digute guztiok.

Kontzertua eskainiko duten bi taldeek hilaren 27ko hitzordu berezi honetara hurbiltzeko gonbitea luzatu diete herritar guztiei.

Kalez Kale Txistulari Taldearen erakusketa eta emanaldia Musika Egunean

Musika Eguna ospatzekotan, Kalez Kale Txistulari Taldeak emanaldia eskaini zuen ekainaren 21eko arratsaldean. Hamalau bat pieza eskaini zituzten guztira. Gainera, argazki erakusketa txiki bat ere antolatu zuten udaletxeko arkupeetan. Bertan aspaldiko argazkiak jarri zituzten ikusgai eta horietako irudi batzuk ekarri nahi izan ditugu *Berriketan*-era ere.



Neanderthal gizakiak eginiko tresnak aurkitu dituzte Praileaitz I haizuloan

2012ko irailean eta azaroan indusketa arkeologikoak egin zituzten Praileaitz I haizuloan, eta aurtengo udaberrian –maiatza partean– eman dute indusketa haien emaitzen berri. Bada, Neanderthal gizakiak egin-dako harrizko tresnak agertu dira bertan eta horrek orain arte uste zena baino milaka urte lehenago kokatzen du kobaren erabilera. Alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi bezala, orain arte Praileaitzen aurkitutako objektu zaharrenak duela 12.000 eta 17.500 urteen artekoak baziren, harrizko tresna hauek duela 40.000 eta 120.000 urteen artean kokatzen dira. Horrek zera esan nahi du: Cromagnon gizakiaz gain, Neanderthal gizakiak ere erabili zuela kobazulo hau.

Pasa den ekainaren 13tik 27ra bitartean, indusketetan jardun dira berriro arkeologoak –Xabier Peñalverren gidaritzapean–; eta bigarren fase bati ere ekingo diote irailaren 2tik 13ra bitartean. Esku-hartzeak hiru espazio ezberdinetan egingo dira, iaz lan egin zuten toki berberetan: atarian, mendebaldeko galerian eta barneko bigarren gelan. Helburua espazio horietan sakontzea da, aurkikuntza berriak egiteko itxaropena baitago.

Salaketa Legebiltzarrean

Aranzadi Elkarteak, Praileaitzen Lagunek, eta Mutriku Natur Taldeak



Praileaitzko babes eremua 50 metrora itzultzea salatu berri dute Legebiltzarrean.

Koba babesteko dekretua ezarri zuen Jaurlearitzak 2007an. Ondoren, dekretu horrek bi aldaketa izan zituen 2010ean eta 2012an. Azken aldaketaz geroztik, babes eremua 65 metrokoa zen, baina dekretu hori iraungi egin da ekainean, eta berriz ere 2007ko egoerara itzuli da aztarnategiaren babes eremua –50 metro izatera, alegia–. Hori hala, babes perimetro hori nahikoa ez dela azaltzeko agerraldia egin zuten aipatutako hiru taldeek Legebiltzarreko Kultura Batzordearen aurrean.

Gainera, gogoratu beharra dago Praileaitz I haizuloa Espainiako Gobernuak gidatzen duen Kosta Legeak babesten duela egun. Lege hori ere aldatu egin du Espainiako Gobernuak berriki, eta 100 metroko babes eremua izatetik 20 metroko babes eremua izatera igaro da.

San Juanak Santa Katalinan

Egia auzoan dagoen Santa Katalinako ermitan ere ospatzen dira San Juanak ekainaren 24an. Aurten, 11:30ean hasi zuen meza Patxi Aizpitarte apaizak, eta lore sortak ere bedeinkatu zituen –lore horiek ekaitza dagoenean erre, eta horren ondorioz ateratzen den keak txingorra saihestu dezakeenaren sinismena dago baserri munduan–. Elizkizunaren ondoren, txorizo eta haragi gisatuaren ogitartekoak salda eta ardoz lagunduta hartzeko aukera egon zen. Eguraldia lagun, eta kanpai hotsean, bertaratutako 140 bat lagunek para-je eder horretaz gozatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, trikitilariak eta erroskila salmenta postua ere izan ziren, eta txupinak jaurti zituen auzokide batek. Antzina, egun osoko erromeria izaten bazen ere, gaur egun eguerdi partean izaten da ospakizuna.



Deba 100 hitzetan

Diego Sagredo Fundazioak eta Debako Udalak literatur lehiaketa antolatu dute. Debako udalerriarekin, bere historia, kultura, paisaia, jendea, ohitura, festak nahiz herriarekin zerikusia duten gaiak onartuko dira. Edonork har dezake parte eta lanak euskaraz edota gazteleraz sailkatuko dira –bi sari egongo dira hizkuntza bakoitzeko, lehenengoa 500 eurokoa eta bigarrena 200 eurokoa–. Testuek ez dute 100 hitz baino gehiago izan behar eta Turismo Bulegoan aurkeztu beharko dira, irailaren 30a baino lehen. Oinarriak kontsultatzeko edo informazio gehiagorako: www.deba.net.

Auzo konpostean parte hartzeko aukera


Auzo konpostaren proiektua aurrera eramateko lehenengo pausuak eman ditu dagoeneko Debako Udalak eta aztertzen ari da konpostagailuak non eta nola jarri. Herritarrei inkesta bat ere zabaldu zaie haien interesa ezagutzeko asmoz, eta maiatzaren 22an Itziazarren eta 23an Deban informazio bilerak egin ziren. Auzo konpostean parte hartu nahi duenak udaletxean eman beharko du izena, telefono honetara deituz: 943 19 28 40 edo ondorengo email honetara idatziz: konposta@deba.net.

“Herritarron epaia” ekimen ibiltaria

197/2006 Doktrinak bidegabeki luzatzen du espetxealdia, zigorra betea duten presoen kasuan. Gaur egun, 70 euskal preso daude egoera horretan. Kixkur, Txispas eta Erletek ere aspaldi betea dute zigorra eta kartzelan jarraitzen dute oraindik.

“Herritarron epaia” izeneko ekimen hau gizartearen borondatearen testigantza izango da, herriz herri adierazia, eta Europako erakundeei eta nazioarteko komunitateari zuzendua. Abuztuaren 11n, Deban izango dugu aukera gure iritzi eta ekarpenak bertan egiteko. Hortaz, herritar guztiak ekimenean parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Denon artean, herriz herri, giza eskubideen errespetuaren eta salbuespeneko espetxe politikaren amaieraren aldeko aldarria osatuko dugu. Konponbidearen alde egiteko garaia da, eman diezaigun aukera bat bakeari.

Herrira Bilgunea



Agenda

Uztailak 19-20 (ostirala eta larunbata)

-Galerna Festa 2013. Kirol txapelketak (boley, futbol, palak...), kontzertuak eta festa giroa Debako hondartzan.

Uztailak 21, igandea

-10:00. **Ibilketa Nordikoa**. Ibilbide urdina, 9.250 m. Izen-ematea Turismo Bulegoan.

Uztailak 23, asteartea

-19:00. **Udara Kulturaz Blai**. "Katapuntxinpun festa" haurrentzako ikuskizuna, Kiki eta Koko pailazoen eskutik. Hitzordua Zumardian izango da, Zuhatzak antolatuta.

Uztailak 25, osteguna

-12:30. **Jubilatuena bazkaria, Itziarren**. Meza egingo da, eta ondoren bazkaria Salegi Jatetxean.

Uztailak 26, ostirala

-Pablo Sorozabali eskainitako erakusketa inauguratuko da Agirre Jauregian.

Uztailak 27, larunbata

-11:00. **Oinarrizko patinaje ikastaroa**: Euskal Jolas pilotalekuan, haur zein helduentzat. Patinak eraman behar dira.
-Ganean, Kalbeton Zumardian. Debako Musika Bandak eta Aitzuri Abesbatzak **kontzertua** eskainiko dute Pablo Sorozabalen omenez. Informazio gehiago 16. orrialdean.

Uztailak 28, igandea

-8:30. **Korrikamarra** (elkarrekin korrika egiteko hitzordua). Hondartzako aldagelatan elkartuko da jendea.
-12:30. Preso eta iheslari politikoen aldeko **elkarretaratzea** hondartzan, Herrira mugimenduak deituta.

Uztailak 30, asteartea

-19:00. **Udara Kulturaz Blai**. "Baietz lortu" haurrentzako ikuskizuna, Monda eta Lironda taldearen eskutik. Hitzordua Zumardian izango da, Zuhatzak antolatuta.

Abuztuak 3, larunbata

-**Merkatu Txikia**, estalitako pasealekuan. Goizean.

Abuztuak 4, igandea

-**Gipuzkoako taldekako giza proba txapelketaren finala**, Aiako probalekuan.

Abuztuak 3-7

-**Kopraixak** ospatuko dira Itziarren.

Keixetaren erakusketa, Elizako klaustroan

-Txiki Agirre, *Keixeta* (Arroa, 1963) artistaren erakusketa ikusgai dago Santa Maria Elizako klaustroan.

Autoreak koadroak eta eskultura lanak aurkezten ditu bertan, "Barneratzeko

guneak" izenburupean.

Erakusketa uztailean eta abuztuan egongo da zabalik, honako ordutegian:

Asteartetik larunbatera: 11:00-13:00/16:30-19:00. Igande eta jaiegunetan: 17:00-20:00.



VI. Nazioarteko Folklore Jaialdia

-Uztailaren 30ean (asteartea) VI. Nazioarteko Folklore Jaialdia ospatuko da Deban, Gure Kai eta Siyavutsa (Hegoafrika) taldeen eskutik. Arratsaldeko 19:00ak aldera, bi dantza taldeak Zumardiko kioskoan elkartu

eta kalejira joango dira Foruen Plazara -bertan egingo zaie harrera hegoafrikarrei-

Jaialdiari 22:30ean emango zaio hasiera, Kalbeton Zumardian.

Geoparkeko irteerak

-Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatu ezberdinak eskainiko ditu udan. Horien gaineko informazio eguneratu

eta osatua jasotzeko, www.geoparkea.com ataria kontsultatu edo deitu Debako Turismo Bulegora (943 19 25 52).

Informatika Gela

-Uztailaren 23an eta 30ean, eta abuztuaren 1etik 18ra bitarte-

an, Informatika Gela itxita egongo da.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **uztailak 26, 27, 28.**

abuztuak 5, 6, 7, 8.

Burgoa Zuazo: **uztailak 22, 23, 24, 25.**

abuztuak 9, 10, 11.

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 27

abuztuak 3

BURGOA ZUAZO: abuztuak 10 eta 17


9:30 - 13:30



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAITZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A
D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guztiaren zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel.: 943 029 408 - 918 244 014
20820 DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sokagiu, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK

ETA GIRO ONA

Informatika: Tresneria informatika
Elektronika: Osagai elektronikak

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

e-mail: jk@informatika@elektronika.e.telefonico.net

Bordatxo
JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376

Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

UDARA KULTURAZ BLAI

KULTURAZ BLAI, EUSKARAZ BLAI, HAUR ETA GAZTE HURBILDU ALAI!!



KIKI ETA KOKO
"Katapuntxinpun Festa"

uztailak 23. 19:00etan, zumardian



MONDA ETA LIRONDA
"Baitez lortu"

uztailak 30. 19:00etan, zumardian

**EGURALDI TXARRA EGINGO BALU,
KULTUR EKIMENAK LUZAROKO
PILOTALEKU TXIKIAN BURUTUKO LIRATEKE**